

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Epea luzatzea, eskabideak eta diruz lagun daitezkeen gastuak aurkezteko garapen-nahasmenduak edo horiek izateko arriskua duten 0 eta 6 urte bitarteko adingabeentzako banakako laguntza ekonomikoen deialdi publikoan, 2026ko ekitaldirako

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluaren 2026ko maiatzaren 7ko erabakiaren bidez, garapen-nahasmenduak edo horiek izateko arriskua duten 0 eta 6 urte bitarteko adingabeentzako banakako laguntza ekonomikoen deialdi publikoa onartu zen 2026ko ekitaldirako (200.000,00 euro).

2026ko maiatzaren 18ko ALHAOn (56. zenbakia), garapen-nahasmenduak edo horiek izateko arriskua duten 0 eta 6 urte bitarteko adingabeei zuzendutako banakako laguntza ekonomikoen 2026ko deialdi publikoa argitaratu zen.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Administrazio Kontseiluaren 2026ko irailaren 17ko erabakiaren bidez, onartu da epea luzatzea garapen-nahasmenduak dituzten edo izateko arriskua duten 0-6 urteko haurrei zuzendutako banakako laguntza ekonomikoen deialdi publikoan eskabideak aurkezteko eta diruz lagun daitezkeen gastuak 2026ko ekitaldirako, eranskinean ezarritako oinarrien arabera, honela:

— 5.2. oinarria. Eskabideak aurkezteko epea 2026ko azaroaren 9ra arte luzatuko da.

— 6.1. oinarria. Deialdi honen babesean diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko dira 6.2 puntuan zehaztutako zerbitzuak ordaintzera bideratutakoak, baldin eta 2025eko urriaren 1etik 2026ko azaroaren 30era bitartean egin badira eta aurreko deialdietan dirulaguntzarik jaso ez badute.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko irailaren 18a

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE